

**IKUSENTZUNEN LAN ETA GRABAZIOEN
EMANALDI PUBLIKOA
ZINEMA ARETO ETA ANTZEKOETAN**

Tarifa hau osatu da zinema areto eta antzeokoetan babespeko obretaz egiten diren emanaldiei dagozkien jabetza intelektualeko eskubideen esplotazioari erantzuna emateko. Zehazki, Jabetza Intelektualeko Legea harmonizatzeko 1/1996 Legegintza-Dekretuaren (aurrerantzean JIL) 90.3, 90.4 eta 108.5 artikuluetan deskribatutako komunikazio publiko modalitateei dagokien ordainsaria bideratzeko intentzioz osatu da, kontuan harturik legeak berak zehaztu bezela, kudeaketa erakundeen bitartez ordaindu beharreko konpentsazioa dela hau.

Tarifa argitaratzearekin batera sartuko da indarrean, eta iraunaldi mugagabea izango du hortik aurrera. Horrez gain, automatikoki indargabetuko ditu aurretik eskubide mota hauei zegozkien Tarifa Orokorretako epigrafeak, I. tituluko 18. epigrafea barne. Tarifa hau aplikagarri izango zaie ikusentzuneke lanen jatorrizko egileei (zuzendari, idazle zein musikari); lan konposatuetan, jatorrizko lan gehituaren egileei; eta musikaren zein ikusentzuneke obraren interpretatzaile eta soinuzein zein ikusentzunezko grabazioen ekoizleei, legeak zehazten duenaren arabera. Tarifa hau ez zaie aplikagarri lan grafiko, piktoriko, plastiko, eskultoriko, argazkilaritza lan eta Tarifa Orokorretako IV. tituluko 16. epigrafean zehazten diren tarifak aplikaziozko dituztenak.

Tarifa honen osaketan, kontuan hartu dira JIL-en 164. artikulua barne ageri diren betekizunak. Bereziki, erabilera zehatzari dagokion eskakizuna hartu da kontuan, erabiltzaileen gaineko karga bikoitza era ahalik eta zorrotzenezan ekiditeko, baita kopuru bakoitza egile ala eskubidedun egokiari hel ditzaiola bermatzeko. Intentsitate parametroa ez da kontuan hartu emanaldiak era komertzialean egiten dituzuten zinema aretoentzat, areto ala esparruetara kontsumitzaileek duten sartze tarte osoan errepertorioa erabiltzen ari dela; ezta, era berean, garrantzia parametroa, ulertzen baita areto ala esparruaren aprobetxamendu ekonomiko osoa ikusentzunezko lanen esplotazioan oinarritzen dela. Beste erabiltzaile ala erabiltze mota berezientzako salbuespenak ezarri dira, kontuan harturik irabazasmorik gabeko erakundeen aldetiko erabilera eta administrazio publikoei eskaini beharreko berezitasun tarifarioa.

DEFINIZIO APLIKAGARRIAK

Emanaldi publikoa: obra zinematografiko eta bestelako ikusentzuneko lanen proiektzio ala erakusketa publikoa, JIL-aren 20.2.b) artikuluari jarraiki.

Ikusentzuneko grabazioak eta lanak: era orokorrean, ikusentzuneko medioen bitartez, musikarekin ala gabe egindako edozein grabazio, barne egonik ikusentzuneko lantzat har daitezkeen lan zinematografikoak, dokumentalak, artistikoak, publizitatezkoak, eta bestelako ikusentzuneko obrak .

Zinema aretoa: lan zinematografiko eta bestelako ikusentzuneko grabazio eta lanen emanaldi publikoak antolatzen dituen lokal ala esparrua, zehazki ekintza horretarako erabiltzen denean bereziki; izan sarrera-txartela ordainduz ala musutruk, eta dela lokal ala esparrua behin-behinekoa ala behin-betikoa, edonon dagoela eta edozein dela bere jabetza. Barne ulertuko dira xede berdina duten eta aire zabalean dauden esparruak.

Zinema aretoen antzeko beste gela, lokal ala esparrua: lan zinematografiko eta bestelako ikusentzuneko grabazio eta lanen emanaldi publikoak antolatzen dituen lokal ala esparrua, zinema-areto komertzialetatik kanpo uler daitezkeen edozein adieran; izan sarrera-txartela ordainduz ala musutruk, eta dela lokal ala esparrua behin-behinekoa ala behin-betikoa, edonon dagoela eta edozein dela bere jabetza. Barne ulertuko dira xede berdina duten eta aire zabalean dauden esparruak.

TARIFAK

SARRERA-TXARTELA ORDAINDUZ BADA

Zinema areto ala antzeko beste gela, lokal ala esparruetan ikusentzuneke grabazio edo/eta lanen emanaldi publikoak antolatzeagatik, sarrera ordaintzearen truke.

Sarrereren salmentagatik bildutako diru-kopuruari aplikatuko zaizkio hurrengo tarifak:

- Ikusentzuneke lanaren jatorrizko egileentzako (zuzendari, gidoilari, jatorrizko musikaren konposatzaile, etab.): %2
- Ikusentzuneke lanaren interpretatzaileentzako (aktore, ahots-aktore, eszena zuzendari, etab.): %1,9
- Ikusentzuneke lanetan entzun daitezkeen musika-lanen grabazioetako interpretatzaileentzako: %0,6

Tarifa hauetako bakoitza soilik aplikatuko da aipatutako eskubidedun kategoria bakoitzean EKKIko bazkideen errepertorioa egongo balitz.

Tarifa hauetako bakoitza era banatu eta metatuan aplikatuko da. Era berean, bakoitzari erabilera zehatzagatiko ponderazioa aplikatuko zaio, kontuan hartuz aipatutako eskubidedun kategoria bakoitzetik zein den EKKIko bazkideen errepertorioaren proportzioaren arabera.

Herri-administrazioek ala irabazasmorik gabeko erakundeek egindako erabilerari %10eko deskontua opatuko zaie.

SARRERA MUSUTRUK BADA

Zinema areto ala antzeko beste gela, lokal ala esparruetan ikusentzuneke grabazio edo/eta lanen emanaldi publikoak antolatzeagatik, sartzea musutruk denean.

Bi ikusentzuneke lan gehienez erakusteagatik sesio bakarrean, 10,47€ko tarifa bakarra.

Tarifa honi erabilera zehatzagatiko ponderazioa aplikatuko zaio, kontuan hartuz aurreko tarifiari aipatutako eskubidedun kategoria bakoitzetik zein den EKKIko bazkideen errepertorioaren proportzioaren arabera.